

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Amerikaren errepresentazioa

XX. mendeko euskal literaturan

**Resurreccion Maria Azkueren, Robert Laxalten
eta Martin Ugaldereen testuen azterketa**

Nagore Rodríguez Andueza

Euskal Ikasketak Gradua 2019/2020

Tutorea: Mari Jose Olaziregi

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

1 LABURPENA

XX. mendean euskal literaturak Amerikaz eman duen irudia aztertu nahi izan dugu lan honetan; eta horrekin batera, garai horretan literaturak emakumeei eman zien rola. Horretarako, XX. mendeko hiru liburu landu ditugu, mende osoa irudikatuko duten hiru garairen ordezkari: Resurreccion M. Azkueren *Ardi galdua* (2018 [1918]); Robert Laxalten *Sweet Promised Land* (1957) liburuaren euskarazko itzulpena, *Dominique artzain xiberotar bat Nevadan* (2002 [1988]); eta Martin Ugaldereen *Itzulera baten historia* (1990).

Aurretik egindako ikerketei jarraituz, gure hipotesia izan da Amerika, batik bat, fedea galtzeko tokia eta aberasteko tokia izan dela euskaldunentzat, eta beraz, hala errepresentatu duela literaturak ere XX. mendean. Hori aztertzeko ikerketa postkolonialari jarraitu diogu, euskaldunen eta 'Bestea'-ren (=Amerika) kontzeptua aztertzeko. Emakumeen gaiari heltzeko, aldiz, Ikerketa Subalternoez baliatu gara.

Azkueren *Ardi galdua*-n fedea galtzeko tokia da Amerika; protagonistak Euskal Herritik alde egitean, fedea galduko du, eta Euskal Herrira itzuli arte, ez du berreskuratu.

Aberastasunaren ideia ere ageri da liburu horretan, baina batez ere, nabarmenagoa da Laxalten eta Ugaldereen liburuetan. Nevadara joandako artzain baten istorioa kontatzen du Laxaltek. Hain justu, bere aitaren istorioa da, Zuberoatik Nevadara dirua irabaztera joandako artzaina. Lehen biak, Azkue eta Laxalten liburuak, AEBetan kokatzen dira. Ugaldereen liburuan ere Amerika aberasteko tokia da, baina kasu honetan AEBetatik Venezuelara aldatzen da kontakizuna. Gainera, alde politikoa gehitzen zaio eleberritari, frankismotik ihesi dabilen familia baten historia delako. Protagonistari begira ere aldaketa dakar Ugaldereen liburuak, neska gazte baten begietatik kontatzen baita bere familiaren historia.

Beste gai batzuk ere aipatzen dituzte liburuek: aberasteko Ameriketako egindako lanaren gogortasuna, bakardadea, herrimina eta Euskal Herrira itzulera. Lanaren gogortasuna eta bakardadea Dominique artzainaren kontakizunean ikus daitezke oso garbi. Martin Ugaldereen lanean, berriz, itzulera eta deserrotzearen ideiak dira nabarmen.

Bestalde, emakumeek literaturan izan duten rola aztertu dugu. Jeronima Echeverriak erakutsi bezala (Echeverria, 1999), emakumeak bigarren mailako irudikatu diren arren, garrantzi handia izan zuten artzainen bizimoduan.

Beraz, hiru lanak aztertuta, garbi ikus daiteke euskal literaturak XX. mendean Amerikaz emandako irudia: aberasteko eta fedea galtzeko tokia da. Era berean, argi ikus daiteke emakumeak bigarren mailan geratu direla XX. mendeko euskal literaturan.

2 AURKIBIDEA

1	LABURPENA	2
2	AURKIBIDEA.....	4
3	SARRERA	5
4	AURREKARIAK: DIASPORARI BURUZKO IKERKETAK ETA AMERIKAREN ERREPRESENTAZIOAZ	6
4.1	‘Erbeste’ hitzaren garapena.....	7
4.2	Erbestealdi garaiak.....	8
4.3	Gaiak.....	8
4.4	Emakumeak.....	9
5	MARKO TEORIKO-METODOLOGIKOA	11
6	ANALISIA.....	13
6.1	Corpusaren aurkezpena.....	13
6.1.1	‘Ardi Galdua’	13
6.1.2	‘Dominique Artzain xiberotar bat Nevada’	16
6.1.3	‘Itzulera baten historia’	18
6.2	Amerikaren errepresentazioa	21
6.2.1	Amerika, aberasteko tokia	21
6.2.1.1	Aberastasuna	21
6.2.1.2	Itxura	23
6.2.1.3	Harrokeria	24
6.2.2	Lan gogorraren eta sakrifizioaren lurraldea	24
6.2.2.1	Baldintza gogorrak.....	24
6.2.2.2	Bakardadea.....	25
6.2.3	Fedea galtzeko tokia	26
6.2.4	Itzulera	27
6.3	Emakumeen rola	28
7	ONDORIOAK	31
8	BIBLIOGRAFIA	33

3 SARRERA

Ikerketa asko egin dira Amerikaren errepresentazioari buruz euskal literaturan. Kasu honetan, hiru liburuen arteko konparaketa egin nahi izan dugu. Hiru liburuak hartuta, XX. mendeko irudi orokor bat emateko, hasieratik mende bukaera arte.

Horretarako, lehenik, Amerikaren errepresentazioari buruz egin diren ikerketak aipatu ditugu gure lanean: Douglass (1997), Irujo (2008), Garikano (2009), Olaziregi (2010)...

Ameriketara joandako garai hori hobeto ezagutzeko, hainbat kontzeptu azaldu ditugu laugarren atalean: erbestea, atzerria, indianoa, amerikanoa.... Erbestealdi horiek ere noiz izan ziren eta zein arrazoiengatik gertatu ziren azaldu dugu. Baita emigrazio horietan emakumeek izan zuten papera.

Gure ikerketa egiteko erabilitako metodologiak azaldu ditugu gero, bosgarren atalean. Bi gai aztertu behar ditugunez, bi teoria aukeratu ditugu: Amerikaren errepresentazioari buruz, Edward Said palestinarraren teoria postkoloniala, *Bestea*-ren kontzeptua aztertzen duena; oso egokia dena gure lanerako: Amerika baita gure *Bestea*. Emakumeen rolari buruz, Ranahit Guha indiarraren ikerketa subalternoari jarraitu diogu.

Amerikarekin lotutako ikerketak aipatu eta gero, gure corpusean eta azterketan sartu gara. Lehenik, aztertutako hiru liburuak aurkeztu ditugu (seigarren atalean), eta haiei buruz beste ikerlariak egindako lanak. Ondoren, liburu horietan Amerika nola errepresentatuta dagoen eta emakumeen papera aztertu dugu seigarren atalean baita ere.

4 AURREKARIAK: DIASPORARI BURUZKO IKERKETAK ETA AMERIKAREN ERREPRESENTAZIOAZ

Orain arte, idazle askok landu dute euskal emigrazioaren gaia, besteak beste, Xavier Irujok (2008), William A. Douglass (1997), Asun Garikanok (2009) eta Mari Jose Olaziregik (2010). Haien egindako lanetan emigrazioarekin lotutako hainbat arlo jorratu dituzte: *erbeste*a hitzaren esanahia, erbeste garaiak, Amerikaren errepresentazioa, *Bestea*-ren irudia, gaiak, emakumearen papera... Besteak beste, azaltzen dute emigrazioak kezka sortu zuela garaiko gizartean.

Euskal emigrazioaren gaia sakon aztertu duenetako bat da Asun Garikano. *Far Westeko Euskal Herria* liburuan (Garikano, 2009), XIX. eta XX. mendeen migrazio mugimendu handiak egon zirela dio. William A. Douglass eta Jon Bilbaoren datuak aipatuz, Garikanok dio 1832tik 1907ra ehun mila pertsona inguruk utzi zutela Ipar Euskal Herria (Garikano, 2009: 75). Izan ere, Garikanoren arabera, “Amerikak aukera bat eskaintzen zion sorterrian ezer ez zeukanari. Eta etxeok ere itsasoaren beste aldetik iritsi zitekeen diru-laguntzaren esperantzan geratzen ziren” (Garikano, 2009).

Egoera ikusirik, Elizak emigrazioaren kontrako jarrera aktiboa hartu zuen Euskal Herrian, “fedea galtzeko eta ohitura gaiztoetan erortzeko arriskuan jartzen zela aldarrikatuz” (Garikano, 2009).

Mari Jose Olaziregik ere hainbat lanetan aztertu du emigrazioaren gaia. Besteak beste, haur eta gazte literaturan diaspora nola errepresentatu den aztertu du (2010). AEBetako Buffaloko Unibertsitateko Karen Sands-O’Connor irakasleak egindako ikerketa aipatzen du. Mirim Isasi da Sands-O’Connor irakasleak aipatzen duen egileetako bat. *Basque Girl* (1940) liburuan, egileak berak Euskal Herriarekiko duen herrimina azaltzen du. Sabino Aranaren tradizioei jarraituta deskribatzen du Euskal Herria: katolikoa, euskalduna eta iragan noblea aipatzen ditu. Izan ere, urteetan Amerika euskal identitatea galtzeko leku moduan aurkeztu izan da, Olaziregiren arabera. XVIII. mendean geroztik Amerika *Bestea* bihurtzen da euskal literaturan. Batez ere, *erbeste* hitzak ordurarte erabilitako *atzerri* ordezkatzan duenean. Orduan pertsonaia berri bat ageri da testuetan: *amerikanoa* edo *indianoa*; Ameriketatik aberastuta bueltatzen den emigrantea.

Olaziregiren (2010: 115) ustez, Amerika modu ezkorrean irudikatu izan da literatura idatzian bederen, beti Euskal Herrira bueltatzeko gogoia adierazi dute pertsonaiek.

Amerika euskal emigranteak fedea galtzeko tokia da, Azkueren *Ardi Galdua* (1918) nobelan. Bizioa aurkituko duten tokia da, batez ere emakumeen bizioa aurkituko dute emigranteek. Gorputzerako ona zen herrialdea, baina ez arimarako, Hiriart Urruty kazetariak 1905ean esan bezala. Amerikaren irudi txarra zabaltzen lagundu zuten baita ere A. Apaolazaren eta Kirikiñoren testuek (Olaziregi, 2010: 116).

Bere aldetik, Bingen Ametzagaren liburutegia gainbegiraturaz, Irujok (2008: 13) euskal erbesteko bibliografia zerrendatu du, guztira 900 liburutik gorako produkzio bibliografikoa dela dio, denak euskaraz idatzitakoak edo Euskal Herriko hizkuntza, historia, kultura edo politika arlokoak (Irujo, 2008: 13).

Jakina denez, University of Nevadak Renon duen Center for Basque Studies-en fundatzaile William A. Douglasssek hainbat lan egin ditu euskal emigratioari buruz, “Emigrantes vascos: contrastes en los modelos de adaptación en Argentina y en el oeste americano” artikuluan (Douglass, 1997), Argentinako eta AEBetako mendebaldeko emigratioa konparatzen ditu. Bi emigratioen kontrastea literatura lanetan ikus daitekeela dio. Argentinako koloniak aldizkari eta liburu asko sortu zituen, baita aldizkari akademiko eta literarioak ere; adibidez, *La Baskonia* (1893an sortua) eta *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* (1950ean sortua). AEBetako mendebaldeko euskaldunek, berriz, bi egunkari bakarrik egin zituzten: *Escualdun Gazeta* (1885-86) eta *California’ko Euskal Herria* (1893-97). Literaturari dagokionez, AEBetako mendebaldean literatur idazle bakarra izan zen: Robert Laxalt nobela egilea, guk aztertuko dugunetako bat.

4.1 ‘Erbeste’ hitzaren garapena

Erbestea “atzerria” dela dio Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak, “bereziki, norbait atzerriraturik dagoen lekua”. Xavier Irujo Ametzagak (2008), berriz, hitzaren inguruan hainbat gogoeta egin ditu “Euskal erbestea eta erbesteak” artikuluan. “Erbestea norberarena ez den herrialdea” dela dio, “beste herria”. XVIII. mendetik hona, beste adiera bat gehitzen zaio: “herritik edo lurraldetik kanpo bortxatutako egonaldia edo denboraldia” da.

“Exilio” hitzak, aldiz, tradizio handiagoa du ahozkoan idatzizkoan baino, Irujok (2008: 2) azaltzen duenez; baina idatzietan ere agertzen da 1937ko erbesteaz geroztik (Irujo, 2008: 2).

Bestelakoa da “exodo” edota “diaspora” maileguen jatorria eta esanahia. “Irteera” da “exodo” hitzaren esanahi etimologikoa. Grezieratik gaztelerara eta gazteleratik euskarara pasatako hitza da. Greziar errokoa da baita ere “diaspora”; berez, barreiatu, hedatu edo sakabanatu esan nahi du. Irujok zehaztu duenez, “Exodo” bezala, “diaspora” ere soilik 1937ko euskal erbestea adierazteko erabili izan da (Irujo, 2008: 2).

Berriagoak dira “emigratu eta haren eratorriak, gazteleratik hartutako mailegu semantikoak. “Emigrante eta inmigrante sorlekua utziz beste herri batera doan pertsona da; inmigrante, sorlekua utziz gure herrira datorren emigrantea da”. Irujok berak Euskal Herriak XIX. eta XX. mendetan bizitako deserriak izendatzeko “erbeste” hitza erabili izan duela aitortzen du (Irujo, 2008: 3).

4.2 Erbestealdi garaiak

XX. mendean lau erbestealdi nagusi daudela dio Irujok (2008: 6): lehena 1936ko gerrak eragindako erbestealdia, 1937an; bigarrena, 1939an Bigarren Mundu Gerra hasi ondoren Frantziaren 1940ko hondamendiak eragindakoa; hirugarrena, 1949ko krisialdi ekonomiakoaren eraginez sortutakoa; eta azkena, 1945etik aurrera, historikoki ezezaguna bezain sakona eta zabala den euskal deserri prozesua. 1937 eta 1955 bitarteko urteek bibliografia ugari eragin dute, Irujoren arabera (Irujo, 2008).

4.3 Gaiak

Irujok (2008) bere lanean erbesteratuek landutako gaiak ere aipatzen ditu: herrimina da horietako bat. Baina 1937 eta 1940ko erbesteratuek bazuten Euskal Herriarentzat proiektu politiko bat, 1936ko gerrak amaigabe utzitakoa. Bestetik, familiak hautsita geratu ziren erbestearen ondorioz, eta hori ere askotan errepikatzen den gaia da, Irujoren arabera (Irujo, 2008). 1960tik aurrera, Ameriketara bertan jaiotako euskal erbesteko bigarren gizaldiak hartuko du borroka politikoaren ardura.

4.4 Emakumeak

Garikanok (2009) emakumeei buruzko aipamena egiten du bere liburuko 4. kapituluan. Izan ere, garrantzitsua izan zen emakumeen papera euskal emigrazioan, nahiz eta gutxi agertzen diren. Emigratzen zuten gehienak gizon gazteak izan arren, emakume batzuk aipatzen ditu Garikanok: Eulalia Ugalde, Cecilia Urizar eta Catherine Urquilux, besteren artean. Emakumeek egindako lanarengatik izan zen posible gizonek artzaintzan jarraitzea. Emakumeek hotel eta ostatu sareak kudeatu zituzten, haiek atera zituzten aurrera familiak, eta haien lana izan zen Euskal Herriarekiko lotura hurrengoei transmititzea.

Euskal literaturan, askotan, artzain bakartiaren irudiari buruz hitz egin da, eta emakumeari ez zaio behar duen garrantzia eman (Echeverria, 1999: 228). Jeronima Echeverriak *Home Away from home* (1999) liburuan, euskaldunek sortu zituzten ostatuei eta hotelei buruz hitz egiten du, eta emakumeek izan zuten garrantzia aipatzen du, batez ere, liburuaren 11. kapituluan: *Etxeko Amak. Second Mothers. The Women of Basque Boarding Houses*.

Idea argi bat azaltzen du: sinbolikoki hoteletako andreak amaren figurarekin lotuta zeuden (Echeverria, 1999: 219). Askotan ostatuek etxeko gizonaren izena hartzen bazuten ere, harrera eta goxotasuna etxeko amek ematen zieten bezeroei; eta beraz, haien menpe zegoen ostatuaren arrakasta (Echeverria, 1999: 218).

Aipatzen duen emakumeetako bat Maria Echanis izan da, Jack senarrarekin ostatu bat zuen Oregonen. Bost seme-alaba izan zituen eta bezero asko ere seme-alabak bezala zaindu zituen; hala, askok *etxeko ama* edo *ama* deitzen zuten (Echeverria, 1999: 219).

Nevadan ezarri ziren, berriz, Teresa eta Dominique Laxalt: French Hotel izenekoa ireki zuten, Carson Cityko Capitoletik kale batzuetara. Robert Laxalt semeak hainbat liburutan kontatu du nola moldatu zen Teresa ama haurrak zaintzeko, hotela kudeatzeko... aita normalean ardiekin mendian zegoen bitartean. Monique Urza bilobak ere bildu ditu aiton-amonen bizipen horiek *The Deep Blue Memory* (1993) liburuan.

Ostatu eta hoteleko emakumeen lana nolakoa zen ikusteko haien eguneroko lanaren laburpena egin du Echeverriak liburuan (Echeverria, 1999: 223). Goiz- goizetik gauera arte lan egiten zuten: otorduak prestatu, haurrak zaindu, zerbitzatu, bezeroen arreta egin...

Hoteletan lan egiteaz gain, bestelako lanak ere egin zituzten emakumeek AEBetan, batzuek senarrekin batera lan egin zuten desertuan, arrantxoetan; platerak garbitzen zituzten, haurrak zaindu, baratzeaz arduratu.

Donna Gabaccia historialari etnikoak dioenez, emakume etorkinek tradizio zahar eta berriak nahasten zituzten; eta hala izan zen euskal emakumeen kasuan ere: ohitura zahar eta berriak nahastu zituzten, identitate berri bat sortu zuten estatubatuar bihurtzeko (Echeverria, 1999: 230).

5 MARKO TEORIKO-METODOLOGIKOA

Lan honetan teoria postkolonialaren eta ikerketa subalternoen arabera landuko dugu euskal emigrazioaren gaia. Teoria postkolonialaren sortzaileetariko bat Edward Said palestinarra izan zen. 1970eko hamarkadan kolonia izandako herrialde batzuetako egileek mendebaldeko nagusitasun kultural, politikoa eta morala zalantzan jarri zuten; horietako bat izan zen Said bera, Gayatri C. Spivak eta Homi K. Bhabha indiarrekin batera.

Arlo horretan, Saiden lan ezagunenetakoa *Orientalism* (1978) izan zen. Bere lanean aztertu zuen nola irudikatu zuten Ekialdea Mendebaldeko zientzialariek, artistek, kazetariek eta politikariek. Mendebaldeak Ekialdearen irudi desitxuratu bat sortu duela dio Saidek, aurreiritzietan oinarrituta. Europari eta AEBei egozten die Ekialdearen irudi faltsu hori sortzearen errua.

Ikerketa postkolonialaren ardatzetako bat da ‘Bestea’-ren kontzeptuaren sorrera. Identitate bat sortzerakoan, derrigorrez sortzen da ‘Bestea’-ren kontzeptua, ‘gugandik’ bereiziko dena. Saidek aztertzen du nola eraikitzen duen Mendebaldeak ‘Bestea’ (Ekialdea). Garai eta gizarte guztiek sortu dute ‘Bestea’-ren kontzeptua, baina kontzeptu hori ez da estatikoa, prozesu historiko, sozial, intelektual, politiko eta ekonomiko bat da.

Hain zuzen ere, gure lanaren kasuan, ‘Bestea’ Amerika izango da, eta Amerikaren kontzeptua aldatzen joango da denborarekin. XX. mendearen hasieran fedea galtzeko toki moduan ikusiko da Amerika, baina denborarekin, dirua egiteko toki moduan ikusiko dute. Guk aztertutako liburuetan, Amerika euskal emigranteak fedea galtzeko tokia da, Azkueren *Ardi Galdua* (1918) nobelan. Robert Laxalten *Sweet Promised Land* (1957) eleberrian, bere aita Dominique artzainaren historia kontatzen du, Zuberoatik Ameriketara joana dirua egitera. Martin Ugaldere *Itzulera baten historia* (1989) nobelan, berriz, Ameriketara urte asko igaro ondoren, hainbeste desiratutako itzulera egingo du protagonistak Euskal Herrira.

Ikerketa subalternoen taldea, berriz, Asiako ikerlari batzuek osatu zuten, gizarte postkolonialak aztertzeko. Antoni Gramsciren lanetatik hartu zen ‘subaltern’ kontzeptua, gizarte bateko maila apalei erreferentzia egiteko: arraza, etnia, klase sozial,

genero, sexu-orientazioa edo erlijioa kontuan hartuta. Ikerketa subalvernoen sortzaile nagusia Ranahit Guha indiarra izan zen. Indiako nazionalismoaren historiografia elitismoaren esku egon dela salatu du bere lanetan (Guha, 2002: 33). Elite kolonialistaren barruan, Britainia Handiko instituzioak eta idazleak sartzen ditu Guhak. Historiografia elitista horrek estatu kolonialaren egiturak ezagutzen laguntzen digula dio. Baina literatura mota horrek ezin du Indiako nazionalismoa azaldu: ezin du interpretatu herriak berak nazionalismoari emandakoa. Eliteen historiografia historiaren kontrakoa dela dio Guhak: eliteko politikarekin batera, kolonialismoaren garaian, bestelako politika indiar bat egon zela esaten du Guhak, eta hori ezin duela eliteen historiografiak azaldu: aktore garrantzitsuenak ez ziren politikari kolonialak edo Indiako eliteak, baizik eta klase eta talde subalvernoak, gizarte langileen masa (Guha, 2002: 35-37). Bien politikak eta mobilizazioak desberdinak direla dio: eliteen mobilizazioak bertikalagoak ziren, konstituzionalistagoak eta legalistagoak. Talde subalvernoen mobilizazioak, berriz, horizontalagoak eta bortitzagoak. Batez ere, kolonialismoaren garaian, altxamenduak nekazarrienak izan ziren Indian (Guha, 2002: 37).

6 ANALISIA

6.1 Corpusaren aurkezpena

XX. mendeko euskal literaturan Amerikaz egin den errepresentazioa aztertzeko, eta Ameriketara bidaiatu zuten emakumeek izan zuten rola eta haietaz eman den irudia ikertzeko, hiru liburu landu ditugu: Azkueren *Ardi Galdua* (2018 [1918]), Robert Laxalten *Dominique artzain xiberotar bat Nevadan* (2002 [1957]) eta Martin Ugaldereen *Itzulera baten historia* (1990).

6.1.1 ‘Ardi Galdua’

Kronologikoki, hiruetatik lehena, XX. mende hasierakoa da: Resurreccion Maria Azkueren *Ardi Galdua*, 1918an argitaratua.

Azkue 1864an jaio zen Lekeition eta 1951n hil zen Bilbon. Teologia eta filosofia ikasketak egin zituen, eta elizgizona izan zen. Hizkuntzalaria ez ezik, musikaren munduan ere aritu zen, konpositore. *Ardi galdua* nobelan ere badaude bere musika zaletasunaren aztarnak: hainbat pentagrama, besteak beste. Euskararen aldeko lan ugari egin zituen, eta Euskaltzaindia sortu eta gero, lehen euskaltzainburua izan zen.

Bere obrari dagokionez, hainbat arlotan aritu zen: musikan, erlijio-literaturan, antzerkian, eleberrigintzan eta kazetaritzan... Lan aipagarrietako batzuk dira honako hauek: *Euskal Izkindea* (1891), Azkueren hiztegia (1905), “Cancionero popular vasco” (1918) herri kanten bilduma, eta “Euskal Herriaren Yakintza” (1935-47) euskal folklorea eta etnografiari buruzko ikerketa.

1918an argitaratu zuen Azkuek *Ardi galdua*, bere bigarren eleberria, aurretik *Lenengo irakurgaia*. *Bein da betiko* idatzia zuen, 1893an. Euskaltzaindia sortu zen urte berean argitaratu zuen *Ardi galdua*; hain zuzen ere, Azkue bera izan zen lehen euskaltzainburua. Euskaltzaindiaren xede nagusia euskaraz idazteko sistema bat sortzea zen, eta Azkuek *Ardi galdua*-rekin, beharkizun horri erantzun nahi izan zion. Bizkaiera alde batera utzi zuen bigarren nobelan, eta gipuzkera osatuaren erakustaldia da; beterr

inguruko hizkera hautatu zuen, euskaldun guztientzat ulerterrazena zelakoan (Perez Gaztelu - Toledo, 2018a: 3).

Azterketarako, ehungarren urteurrenaren harira, Elixabete Perez Gazteluk eta Ana Toledok 2018an argitaratutako edizioa erabili dugu. Aurretik bazegoen Ines Pagolak egindako edizioa (1989) “edizio xehe eta oharrez ongi hornitua”, Perez Gazteluk eta Toledok dioten moduan (2018a: 1).

Ardi galdua gutun-eleberri bat da, hamahiru gutunez osatua. Liburuko protagonista indiano bat da: Emeterio Olazarreta *Medel*. Emaztea hil eta gero, Isabel koinatarekin ezkondu nahi ez duenez, Kaliforniara joango da, Leon semea Leaburu jaioterrian utzita. Ameriketara aberastu eta gero, herrira itzultzen da Alice bigarren emaztearekin. Ameriketara fedea galduko du, eta herrian frantziskotarrek predikatutako misioetan berreskuratuko du. Hain zuzen bera da izenburuak aipatzen duen ardi galdua: artaldetik (erlijiotik) urrunduta Ameriketara joatean, eta artaldera (erlijiora) itzuliko da herrira itzultzean.

Lehen gutuna Kaliforniako Sacramenton kokatuta dago 1887an, eta azkena, Leaburun, 1901ean. Denborari dagokionez, beraz, 14 urte pasatzen dira kontakizunaren hasieratik bukaerara. Gutun egileek idatzitako istorio bakoitzarekin osatzen da kontakizun nagusia, eta ez dago errepikapenik. Kontakizunak gertakarien kronologia jarraitzen du.

Bost atalez osatuta dago liburua: eskaintza (Ene adiskide maite eta bereterkide gartsu J. J. Arin eta J. M. Zuaztiri); Irakurleari izeneko atala; hamahiru eskutitzak; Gehigarria (hitzen glosario moduko bat); eta Edirengua (aurkibidea).

Gutunek fikziozko munduari errealitate itxura eman nahi diote. Narratzaile orokorra desagertu egiten da, eta gutun egileei ematen die ahotsa. Ahots bakoitza subjektiboa da, baina lanaren egile implizituak objektibotasuna gordetzen du: eskaintzaren eta oharren egile hutsa da. Egile implizitu honen parte hartze nagusia, beraz, irakurleari begira egindakoa da. (Perez Gaztelu - Toledo, 2018b: 19-21).

Protagonista *Medel* da, Ameriketara joan den indianoa. Bere herritarren aldean, entzute handia duen pertsonaia laiko bat da. Gutunetako protagonista nagusia da. Kultura handiko gizona da: ingelesa, musika, euskara... menperatzen ditu. Ameriketatik itzultzean aberastuta dago, eta eskuzabala da herritarrekin. *Medel*en hainbat ezaugarri berezi egiten dute aurretik izandako beste pertsonaia batzuetatik. Gainera, *Medel* da besteekin nahasten

den pertsonaia nagusi bakarra: amerikar batekin ezkontzen da, bazkide amerikarra dauka, protestanteekin loturak ditu... (Perez Gaztelu - Toledo, 2018b: 35). Halaber, Medel iparrameriketako indianoa dugu, besteak ez bezala; aukeraketa ez zen kasualitatea izan, Azkuerentzat ingelesa baitzen mundura zabaltzeko hizkuntza. Ikusten dugunez, Medelek ez du arazorik “Bestea”-rekin nahastu eta bizitzeko. Amerikarrak estimatzen ditu eta eurekin lankidetzan jarduten du.

Pertsonaia moduan, Medel pertsonaia biribila dela esan dezakegu, konplexua. Ezaugarri asko ditu: indianoa da, euskalduna, eskuzabala, protestantea... Gainera, pertsonaia aldakorra da, izan ere, liburuaren hasieran fedea galdua duen pertsonaia da, baina bukaeran berriro ere erlijio katolikora bueltatuko da. Beraz, aldaketa horrek bizitasuna ematen dio kontakizunari.

Gutunetako egileak bederatzi dira: zortzi gizon eta emakume bat. Zortzi gizon horietatik sei apaizak dira, eta bi egile laiko daude: Isabel koinata eta Medel bera (Perez Gaztelu - Toledo, 2018b: 20). Isabel da oreka giroa apurtzen duena eta Medeli leporatzen diona protestantea izatea. Era berean, gutun eleberrian kontalari den emakume bakarra da Isabel, eta hari egozten zaio gatazka eragile izateko ardura. Estereotipoei jarraituz, euskal emakumeari jakin-nahiaren ezaugarria esleitzen zaio; garaiko usteekin bete-betean egin zuen Azkuek (Perez Gaztelu - Toledo, 2018b: 27-28). Gainera, Isabelek, jakin-min hutsa ez ezik gehiegizko urduritasun eta kezka erakusten ditu, emakume bezala bere ezinegon eta larridura, XIX mendeko eleberri askok egiten zuten modura, gaixotasunetik gehiago duten egoerekin adieraziz.

Baina bestelakoa da Alice AEBetako emakumearen irudia: egun zoragarria igarotzen du “besteekin”, euskaldun katolikoekin; eta aldiz, Isabel euskaldunak “besteak” (protestanteak) gaitzesten ditu. Isabelek ezartzen du gutarren eta besteen arteko ezberdintasuna: “gu, katolikoak, kristau onak garelarik, Mari Zirtzil besterikoa”, Alicez ari denean. Medeli ere besterikoa izatea leporatzen dio, “protestantea” (Azkue, 2018 [1918]: 157).

Narratzaileak, beraz, asko dira. Narratzaile bardediegetikoak dira, istorioan parte hartzen dutenak. Lehen, bigarren eta hirugarren pertsonak erabiltzen dituzte kontaketa. Gutun egileak, askotan, lehen pertsona erabiltzen du, bere buruaren berri emateko: “Nire buruaren jabe ez naizela uste dut, hain dukat zorabiatuta” (Azkue, 2018 [1918]: 109). Bigarren pertsonarekin gutunaren jasotzaileari zuzentzen zaio: “Ez diot nik aitatu, ez

berari ez Isabeli ez inortxori, zuk beraz duzun asmo hori” (Azkue, 2018 [1918]: 75). Beste norbaiten pasadizoa kontatzeko, hirugarren pertsona baliatzen du: “Txikitako lagun guztiei adiskidez, irrimirrika eta zipladaxoren bana zuzenduz hitz egiten zien beren herritar aberats honek” (Azkue, 2018 [1918]: 169).

Espazioari dagokionez, Gipuzkoako Leaburu eta Kaliforniako Sacramento dira gune nagusiak. Kontalari batzuk leaburutarrak dira, eta besteak ingurukoak edo gipuzkoarrak. Gune nagusia Leaburu da, hara itzultzen da Medel bigarren emaztearekin Kaliforniatik. Deigarria da Kalifornia paradisuazko leku gisara deskribatuta datorrela lehenengo gutunean (65-67): paisaia aberats eta emankorra, aukera asko ematen dituen, etab. Interesgarria, halaber, lehenengo gutun horretan Medelek artzainen bizimoduaz egiten duen deskribapena, euren bakardadea azpimarratuz. Azkenik, pertsonaien karakterizazioa, Medel kenduta, nahiko azalekoa dela onartuz ere, deigarria da 7. eskutitzean *Mistress Medel Olazen* karakterizazioa, lihozkoa dirudien adateko emakume eder, ia jainkotiar gisara aurkezten baita, Leaburu emakumeekin kontrastean.

6.1.2 ‘Dominique Artzain xiberotar bat Nevadan’

Aitaren artzain bizipenak ardatz hartuta idatzi zuen Robert Laxaltek *Sweet Promised Land* nobela biografikoa 1957an.

Harrera ezin hobea egin zion kritikak: Ingalaterrako National Book Societyk lehen postuan jarri zuen eta AEBetako Literary Guilden bigarrenen. David Rio ikerlariak adierazi bezala, euskal artzainen irudi “ona” zabaltzen lagundu zuen (Rio, 2000: 614). Obraren berrargitarapenean, 1997an, liburua “klasiko bat” zela esan zuen William A. Douglasssek, Renoko Unibertsitateko Basque Studies Programeko zuzendariak.

Sweet Promised Land argitaratu eta berehala agertu ziren lehen itzulpenak, frantsesera eta alemanera. Euskarara geroago itzuli zen: 1988an ekarri zuen euskara batura Xabier Mendigurenek, ingelesezko jatorrizko ediziotik, eta *Dominique artzain xiberotar bat Nevadan* izenburua jarri zion. Itzulpenaren Euskadi Saria irabazi zuen lan horrengatik. Zuberoako Sü Azia elkarteak, berriz, 2010ean argitaratu zuen zubererazko itzulpena, *Aita artzain zen* izenburuarekin; Panpeia Etxebarnek euskaratu zuen, Bertrand Mouchezen frantsesezko ediziotik.

Izenburuari dagokionez, aipatu behar da euskarazko bi itzulpenetan ez dela jatorrizko izenburuaren hitzez hitzeko itzulpena egin. Euskara batuaz zehatzagoa da, Sü Aziak egindako zubererazko itzulpenean, berriz, zehaztugabetasun gehiago dago. Beraz, paratestuaren itzulpenak galdu egiten du Laxalten originalak zuen erreferentzia biblikoa, agindutako lurraldea, Amerika, Genesian Abrahamentzat Israel den bezala. Artzainak itzulpenetako paratestuetan hartzen duen protagonismoak, pertsonaia horren funtsezkotasuna azpimarratu nahi du, ikusi dugunez, emigratu zutenen lanbide hedatuena baitzen. Gainera, Olaziregik azpimarratu bezala (2010: 66), artzaina, euskal literaturan pertsonaia ugari eta estereotipatua izango da XX. mendearen lehen erdiko literaturan eta horixe pasatuko da, gerora, Far Westeko ingelesezko literaturara.

Robert Laxalt liburuaren egilea 1923an jaio zen Kalifornian eta 2001ean hil zen Nevadan (AEB). Euskal jatorriko familia batean jaio zen, Dominique aita Zuberoatik joana zen, eta Teresa ama ere euskal jatorrikoa zen, nahiz eta Bordelen hazia izan. Kazetari eta idazle lanak egin zituen, eta bere lanen artean, *Sweet Promised Land* –ek (1957) lortu zuen ospe handiena. University of Nevada Press delakoaren sortzailea eta zuzendaria izan zen. Lotura handia izan zuen unibertsitatearekin, hango Center for Basque Studies-en sortzailea ere izan zen, 1966an, William A. Douglassekin eta Jon Bilbaorekin. David Rio Raigadas ikerlariak liburu batean bildu zituen haren bizipenak: *Robert Laxalt. La voz de los vascos en la literatura norteamericana* (2004).

Ameriketara joandako artzain baten bizipenak kontatzen ditu *Sweet Promised Land*-ek: Dominique artzainarenak. Zuberoan etorkizun onik ez, eta Ameriketara dirua irabaztera joan zen. 47 urtez aritu zen Nevadan artzain, eta urte horietan bizitako istorioak kontatzen dira, baita Euskal Herrira semearekin egindako bisita ere. Herriminaz eta aberri berriaren maitasunaz hitz egiten du, eta, aldi berean, artzaintzaren gogortasuna azaltzen ditu. David Rio ikerlariak dioen bezala, “lanak erakusten du modu intimista eta hizkuntza soil batekin, are minimalista batekin, nola pixkanaka Dominique identifikatzen doan bere adopzio lurraldearekin, eta nola arrakastaz integratzen den, hainbeste non Euskal Herrira itzultzean sentimendu kontrajarriak sortzen dizkion”. (Rio, 2000: 604).

Narratzaileari dagokionez, orojakilea dela esango dugu. Era berean, barne-fokalizazioa dagoela esan dezakegu. Kontakizunaren barruan dagoen kontakzaile batek ematen du informazioa, kasu honetan bigarren mailako pertsonaia batek: Dominique artzain protagonistaren seme Robertek kontatzen baitu aitaren istorioa. Narratzaile horrek

bi pertsona gramatikal erabiltzen ditu: aitaren historia kontatzeko hirugarren pertsona erabiltzen du, baina bere iritzia ematen duenean edo bere bizipenak kontatzean, lehen pertsona erabiltzen du.

Pertsonaia nagusia Dominique artzaina da. Pertsonaia estatikoa, basamortuan bizi da eta ez du egoera hori aldatzeko asmo handirik, familiak akuilatuta Euskal Herrira itzultzen den arte. Familiako beste kideak (emaztea eta seme-alabak) agertzen dira, bigarren mailako pertsonaia moduan.

Denborari dagokionez, kontakizuna hasten denean Dominique Nevadan dago jada artzain, XX. mende hasiera da. Hilabete batzuk pasako dira Euskal Herrira bisitan itzultzen den arte. Hilabete horietan bidaia prestatzeko antolaketa kontatuko dituzte. Bitartean, hainbat analepsia topatuko ditugu, denboran atzera egingo dute AEBetara iritsi zeneko oroitzapenak kontatzera, baita Euskal Herriko hainbat istorio kontatzeko ere: “Ondo gogoan zeukeat zeinen gogorra izan huen niretzat basamortua lehendabiziko egunetan: gauetan negar egiten nian neure dendan loak hartu arte” (Laxalt, 1988 [1957]: 65)

Nevadako basamortuak eta Euskal Herria dira nobela biografikoan agertzen diren bi espazio garrantzitsuenak. Azpimarratzekoa da, Riok dion bezala, Nevadaren irudi ona ematen saiatzen dela Laxalt; ordura arte, askotan estatu hori nahiko irudi negatiboarekin lotua baitzen: jokoa, prostituzioa, korrupzioa... Baina Laxaltek ez die ezaugarri horiei erreparatzen, eta nekazaritza eremuei arreta jartzen die: batez ere, artzaintzarako erabilitako basamortuak aipatzen ditu. (Rio, 2000: 612)

Protagonismoa duen beste espazioa Euskal Herria da, 1960ko hamarkadako Euskal Herriaren irudia erakusten du: nekazaritzari lotutako Ipar Euskal Herria. (Rio, 2000: 616).

6.1.3 ‘Itzulera baten historia’

Deserrotzeari buruzko lana da Martin Ugaldere ‘Itzulera baten historia’, 1990ean argitaratu zuen.

Andoainen jaio zen Ugalde 1921an eta 2004an hil zen Hondarribian. Kazetaria, idazlea eta politikaria izan zen. 1937an gerraren ondorioz, erbestera jo zuen familiak, Frantzian eta Ipar Euskal Herrian bizi izan zen. Baina ideia nazionalistak zituela-eta,

1947an, Venezuelara joan zen. Bere “beste” aberria bihurtu zen Venezuela, eta idatzi ere gazteleraz eta euskaraz egin zuen. Hainbat arlo landu zituen: kazetaritza lanak, ipuinak, poesia, antzerkia eta eleberriak... 1969an Euskal Herrira itzuli zen, beraz, guk landutako eleberria Euskal Herrian idatzi zuen.

Martin Ugaldereen lana hainbat ikerlarik aztertu dute: Iñaki Beti (1992, 2000) eta Jose Angel Ascuncek (1993, 2002) Ugaldereen Venezuelako lana aztertu dute, gazteleraz; Hamaikabide elkarteak ere hainbat artikulua argitaratu ditu; eta euskaraz, azpimarratzekoak dira Koldo Izagirrek egindako *Erroetatik mintzo* (1993) lana eta Anjel Lertxundirena (1997). Gainera, azpimarragarria da Joan Mari Torrealdai Ugaldere buruz egindako lana (1998, 1999, 2002, 2003, 2009). Lan horiei guztiei Larritz Ariznabarretaren doktore tesia gehitu behar zaie: *Martin Ugalde: Cartografías de un discurso* (2013).

Itzulera baten historia fikziozko eleberria da, baina autobiografia kutsua dauka, izan ere, baditu Martin Ugaldereen bizitzarekin hainbat antzekotasun: frankismotik ihesi, Venezuelara bizitzera joandako familia baten historia kontatzen du, Euskal Herrira bueltatu nahi duena. Familia hori ere Frantzia biziko da, Ugaldereen familia bezala. Kasu honetan, ordea, protagonista neskatila bat da. Ariznabarretak azaldu duenez, Ugalderek ez du ezkututzen literatura norberaren proiektio bat dela (Ariznabarreta, 2013:73). Eleberri horrek harrera ona izan zuen, horren erakusgarri da 1990eko Eusko Jaurlaritzaren Jon Mirande eleberri saria jaso zuela.

Izenburuak zehazten duen bezala, itzulera baten historia kontatzen du eleberriak, deserrotzeari buruzko lana da: hain justu, Venezuelen bizi den familia batek Euskal Herrira itzultzeko bizi dituen pasadizoak kontatzen ditu. Venezuelen dirua irabazi nahi dute, frankismoa bukatutakoan, Euskal Herrian (eta zehatzago Hego Euskal Herrian) bizi ahal izateko. Ezinezko itzulera baten kontaketa da: familiako seme-alabek lortuko dute Santurtzin bizitzea, ez ordea, gurasoek. Dirurik gabe geratu, eta berriro itzuli beharko baitute Caracaserara. Euskal Herrira itzultzeko ametsa bete gabe hilko da familiako aita, Venezuelen. Ezintasun hori aita eta alabaren arteko harremanaren bidez kontatzen da. Alaba venezuelarra da eta Euskal Herrira itzultzean ez du sentituko bere herrialdea denik.

Eleberri honetan narratzailea barnediegetikoa da, familiako 9 urteko alaba da haien istorioa kontatzen duena, liburuiko protagonista bera da; eta lehen pertsona

gramatikala erabiltzen du kontakizunean: “Eta nik neuk hartu nuen min, aitatxo isilarazi nuelako” (Ugalde, 1990: 30).

Aipagarria da emakume gazte bati ematen zaiola protagonistaren papera, hala ere, emakume ahula da, beldurrez betea. Gainera, izenik gabeko protagonista da, eta hori ohikoa da Ugalderean kontakizunetan; errealitate kaotiko batetik ihes egiten saiatzen dira protagonista horiek isiltasunaren, loaren eta etxera itzuleraren bidez (Ariznabarreta, 2013: 131).

Kontakizunaren fokua narratzailearen beraren gain dago: Caracasen bizi da, baina 15 urterekin, Euskal Herrira joango da. Hura da istorioaren drama ongien azaltzen duen pertsonaia: Euskal Herrira itzuli arren, arrotz sentitzen da; deserrotzea oso ondo erakusten du. Pilar Rodriguezek azaldu duen bezala, aitak bere herriaz ematen dion ikuspuntu nostalgiko eta idealizatua dezepzio bihurtzen da alaba Euskal Herrira iristen denean, eta herrialdea arrotz egiten zaionean (Ariznabarreta, 2013: 32). Halaxe dio alabak:

Bestalde, hasia nintzen pentsatzen, egitan, neuk ez nituela inoiz aitatxok bere lurrean ikusi zituen mirariak ikusiko. Ez nekien zergatik; behar bada neuk lur hau, nire aitaren eta amaren lurra, bereziki nirea bezela sentitzen ez nuelako. (Ugalde, 1990: 132)

Denborari dagokionez, kontakizuna alabak 9 urte dituen hasten da, baina liburuaren bukaerarako 19 urte ditu. Beraz, hamar urtez luzatzen da kontakizuna. Garai historikoari buruz esan dezakegu 1940-50eko hamarkadetan kokatzen dela istorioa, frankismo beteko garaiak dira Euskal Herrian; aberastasun garaia, aldiz, Venezuelan.

Bi espazio nagusi ditu eleberriak: Venezuela eta Euskal Herria. Argi azaltzen zuen Ugaldek berak bi aberri zituela: “Bai, bi aberri ditut, bihotza eta buru zabalak ditudalako, nonbait, edo Ameriketako bideetan zehar zabaldu zaizkidalako” (Torrealdai, 1998: 123). Venezuela bere “beste aberria” zela esaten zuen. Eleberrian ere, ‘beste’ Venezuela dela esan dezakegu. Horretaz gain, beste espazio batzuk ere ageri dira fikziozko istorioan: Frantzia eta Donibane Lohizune. Hain juxtu, Ugalde bera bizi izan zen tokiak.

6.2 Amerikaren errepresentazioa

Hiru liburuek Amerikaz egiten duten errepresentazioa aztertuko dugu atal honetan. Hiruetan errepikatzen da ideia bera, eta hiruetan ideia nagusia edo nagusietako bat da: Amerika dirua irabazteko lekua da. Horretaz gain, badago beste ideia nagusi bat liburuetako batean, *Ardi galdua*-n, hain zuzen: Amerika fedea galtzeko tokia da. Horrekin batera, hirugarren ideia batek osatzen du gai garrantzitsuenen zerrenda: Euskal Herrira itzulera. Ideia nagusi horiez gain, bigarren mailako beste ideia batzuk ere aurki daitezke, adibidez, lanaren gogortasuna, sakrifizioa, bakardadea, hizkuntza, itxaropena, frankismoa...

6.2.1 Amerika, aberasteko tokia

6.2.1.1 Aberastasuna

Hiru liburuek aipatzen duten gai nagusitik abiatuko gara: aberasteko tokia da Amerika.

Ideia hori aurki dezakegu *Ardi galdua*-n, jakina denez, genero epistolarrean koka genezakeen eleberria, eta beraz, ahots aniztasun deigarria erakusten duena, ikuspuntu desberdinen erakusgarri. Lehen eskutitzetik bertatik: Adrian Iriondo Leaburuko bikario jaunari Emeterio Olazarretak idatzitako gutuna da; Kalifornian dauden aberastasunak zerrendatzen ditu, Leon bere semeaz ari denean: Euskal Herrian baino “ikasbide hobeak”, “irabazbide gehiago” eta dirua “ugariago” dela dio (Azkue, 1918: 61).

Sor Santa Katalinari ahizpa Isabelek idazten dion gutunean ere aipatzen du aberastasuna modu orokorrean (“dirutsua denaren zantzuak”), baina xehetasun gehiago ematen du, kopuru zehatzak azalduz; hala nola Adriani “mila ogerleko, mila astaperra handi” (Azkue, 1918: 101) bidali dizkiola kontatzen du.

Ameriketari aberastu den horietako bat Medel protagonista da; herrian argi dute Ameriketatik bueltan aberastuta etorri dela. Herri bazkari batean izandako elkarrizketa biltzen du Vasco de Gaintzak Ecos del Urumearen zuzentzaileari idatzitako gutunean:

Alkateak paperak eskuan zituela, arimazainari -txirorik ba ote da Leaburun?- galde egin zion: aberatsik ere bat eta berau bihartik aurrera badoakigu eta kito [Medelez] (Azkue, 1918: 195).

Robert Laxalten liburuan ere aberastasunaren ideia ageri da. Argi eta garbi adierazten du Dominique artzainak zertarako joan zen Ameriketara, dirua irabazi, eta Euskal Herrian familiari laguntzeko:

Etorri nintzenean piska baterako bakarrik izan zen, diru piska bat egin eta atzera aitari eta amari etxaldea zaintzen laguntzera itzultzeko behar zen denboraldirako (Laxalt, 1957: 47).

Ingurukoek ere ikusten dute zer egin duen Ameriketara, eta Amerika aberatsaren irudia osatzen laguntzen dute; Dominique eta semea Euskal Herrian egon eta familiarengandik agurtzen ari direnean, hauxe esaten du Jose senitartekoak:

Ameriketara joan eta fortuna egin du (Laxalt, 1957: 202)

Itzulera baten historia liburuko familia protagonista aberastu egin dela hasieratik ikusten dugu, Caracasen bizi dira eta lehen orritik bertatik nabaria da familia aberatsa dela, hain zuzen, neskamea kontratatzeari buruz ari da liburuaren hasieran:

Nire ama nekatu egiten zen egun batzuk besterik irauten ez zuten neska gazteez; etortzen ziren interioretik (ekialdetik eta Andesetatik gehienak), hiriburuko argiek liluratuta [...]. Hala, nire amak egonkorrago zen norbait behar zuenez gero, hurren hartu zuen Rosa izan zen (Ugalde, 1990: 9)

Aberastasunaren beste adibide bat da senitarteko bati mailegu bat egiten diotenean, eta haiek gaztelu batera bizitzera joango direnean (Ugalde, 1990: 103). Mailegu horrek, ordea, familia egoera txarrean uzten du ekonomikoki, eta atzera ere Ameriketara joan beharko dira aberastera. Berrito ere aberasteko toki bezala aurkezten

da Venezuela (Ugalde, 1990: 174). Seme-alabak Euskal Herrian geratu dira eta amak Venezuelatik Adela izeba zaharrari idatzitako eskutitza da:

Eskatzen zion izeba zaharrari behar genuen guztia erosteko, eta ahal zuen guztietan arraina jaten emateko, gazteluan ez genuela arrainik ikusi ere egin, eta gure adinean beharrekoa genuela... Gainerako guztia guretzat zen: aita iparramerikar batzuei kontabilitatea eramaten hasia zela, eta ama bera negozio txiki bat, dendatxo bat, jarri nahian zebilela (Ugalde, 1990: 182).

6.2.1.2 *Itxura*

Ardi Galdua-n deskribapen fisikoen bidez argi geratzen da Ameriketara joandakoak nola aberastu diren, “lepo gorri mamitsu”, “sabel-zorro borobila”, “garondo gorri eta zilbor beteak” aipatuz:

Martin Lontxo: joan hadi hor beheko zumardira hamaikak aldean. Egunero ikusiko dituk tokan jokatzeko, mahukutsik eta hiruna astaperra eskuan dituela, indiano mordoxka bat. Begiratu haien lepo gorri mamitsu eta sabel-zorro borobilari. Hi ere Ameriketara izan haiz; baina hire zerailtasunak, hire hezur zorrotz horiek hik egin huena agertzen duten neurri berean, zumardiko indianoen garondo gorri eta zilbor beteak egoki azaltzen digute Ameriketara bat bano gehiago erruz aberastu izan direla (Azkue, 1918: 133).

Bidenabar, azpimarratzekoa da egiten duen kontrastea Martin Lontxoren deskribapen fisikoarekin: “zerailtasuna” eta “hezur zorrotz” hitzekin adierazten du Ameriketara egon arren, ez duela dirurik irabazi. “Hik egin huena” horrekin pentsa daiteke alferkerian edo bizioan ibili dela Ameriketara. Izan ere, Amerika ere bekatuaren edo alferkeriaren lurraldea izan daiteke, eta hori da hemen adierazten zaiguna: lan eginez gero, aberastasuna lor daitekeela, baina Ameriketara joan eta bekatuan ibiltzen dena goseak bueltatzen dela, Martin Lontxori leporatzen dioten bezala.

Itxura fisikoari erreparatuz erakusten dute baita ere aberastasuna Ugalderean liburuan, kasu honetan, jantziekin eta dotoreziarekin. Alabarengana eskolara doazenean, halaxe deskribatzen ditu gurasoak alabak, eleberriko protagonistak:

Nire aita dotore ikusten nuen, ile asko, oso laburra eramateko ohitura bazuen ere. Nire ama oso emakume ederra zen, gogoratzen naiz bere mota urdineko soineko zuriarekin, dotore, sotil; oso irrifarre bar-narea zuen (Ugalde, 1990: 95).

6.2.1.3 Harrokeria

Baina aberastasunaren ideiarekin batera, harrokeriaren gaia ageri da. *Ardi galduan*, Ameriketara joandakoek erakusten zuten harrokeriaz ari dira. Ondoko hau laugarren gutunetik hartua da, eta Medelek erositako gauza guztien zerrenda egiten dute, aberastasuna objektuen bidez erakusten baitu:

Hori bai: harrokeria erruz darabilgu. Mutilarentzat piano berri kutsatu gabea erosteko, kattagorriak Gaztelu gaineko mendietan hiltzeko eskopeta ere bai, bi hodiduna; irakasle burutsuenak Tolosan begiz jotzeko; elizaldean zerbait egin nahi lukeela; eta Adrianek berak buruko eta soineko eta oinetako bitzuk berarentzat agindu ditzala... “Nola eginak ote dira beraren ondasun-meta horiek?” [Medeli buruz] (Azkue, 1918: 101).

6.2.2 Lan gogorraren eta sakrifizioaren lurraldea

6.2.2.1 Baldintza gogorrak

Amerikak badu alde negatibo bat ere: lana gogor egin behar da. Askok sufritu dute han egondako artzainek, bai fisikoki, bai psikologikoki ere: bakardadea, lanaren gogortasuna... Hala mintzo da Dominique artzaina Ameriketara iritsitako lehen egunez: “Gauetan negar egiten nian neure dendan loak hartu arte” (Laxalt, 1957: 65).

Lurraldearen ezaugarriek lana are gogorragoa egiten zutela kontatzen du; eta hainbat izen eta adjektibo erabiltzen ditu hori adierazteko: “krudela” “larre ugaria”, “dena harria”, “zuhaitz bakarrak”. Egoera horretan, hasieran, lurraldea “nola “madarikatu” zuen azaltzen du (Laxalt, 1957: 128). Euskal Herrian dagoela kontatzen ditu Ameriketako bizi izandako pasadizo asko; behizain batzuekin izandako tira-bira kontatzen du une batean, nola ibili ziren elkarren atzetik armak hartuta (Laxalt, 1957: 164).

Ugalderen liburuan ere begi bistakoak dira sakrifizioaren edo lanaren gogortasunaren ideiak. Gurasoak Venezuelan dauden bitartean, seme-alabak Santurtzin daude, baina protagonista kontziente da diruaren balioaz eta gurasoak egiten ari diren ahaleginaz, eta hortaz ohartarazi nahi ditu ahizpak:

Eta neuk ekin nion amona Mertesedesen errosarioarekin: denbora ongi aprobetxatu behar da, kolejioa garestia da, gurasoak urrun daude gugatik sakrifizioak egiten... (Ugalde, 1990: 180-181).

Geroago aitaren lehen gutuna jasotzen du protagonistak Venezuelatik, aita lana lortzekotan dago itsasoan (Ugalde, 1990: 182). Baina alaba kontziente da itsasoko lana zein gogorra den: “ez zen bide erraza”, “bero handia” (Ugalde, 1990: 189).

6.2.2.2 *Bakardadea*

Sakrifizioaren gaiarekin batera, Dominique artzainaren kasuan, bada bestelako gai bat ere, artzainen artean usu ageri dena: bakardadea. Dakigunez, diasporari buruzko ikerketa lan gehienek (Totoricagüena, 2003; Garikano, 2009) bakardade horren zantzu ugari eskaini dizkigute, dela artzainek denbora-pasa egiten zituzten *carving*-en berezitasunak aipatuz, dela Boiseko hirian kanposantuan hilobiratutako artzain ezezagun mordoa nabarmenduz. *Far Westeko Euskal Herria*-n Pete Agereberriz esaten den bezala (Garikano, 2009: 131), ordu asko pasatu behar izan zituzten basamortuan, ardiez edo zaldiez soilik inguratuta. Pasarte honetan horretaz ari da, hain justu, liburuaren narratzailea, eta horretarako konparazio bat erabiltzen du: boxearekin konparatzen du artzaintza, artzainek bezala bakardadea zer den ezagutzen baitute boxeolariek:

Ringeko gizon hauek bezala, gizon haiek ere bakarrik egonak eta borroka eginak ziren, Jainkoak emandako arma bakarrarekin: eskuekin [...] Lurralde berri batera etorritako guztiek ulertzen zuten zerbait zen. Zeren beraiek ere bakarrik egonak baitziren, laguntza eskatzeko inor gabe, etxea atzean utzia zutelako eta hau herrialde berria zutelako eta borroka egin behar izan zutelako onartuak izateko (Laxalt, 1957: 82).

Martin Ugaldereen liburuan ere ageri da bakardadearen aipamena, batez ere, protagonistaren ikuspuntutik, Caracasetik ateratzen denetik bakarrik sentitzen da: “Ez nuen ulertzen, ordea, zergatik bidaltzen gintuzten bakarrik (Ugalde, 1990: 29)”.

6.2.3 Fedea galtzeko tokia

Ardi galdua-n agertzen den beste ideia nagusia fedea galtzearena da. Azkueren arabera, Amerika fedea galtzeko tokia da, eta horrekin jolasten du liburuaren izenburuak ere: *Ardi galdua*; Ameriketara joandakoa da artaldetik (erlijiotik) urruntzen dena, eta berriro Euskal Herrira itzuli arte eta elizan sartu arte, ez da artaldean sartuko. Euskal Herriko historialariek eta literatur kritikariek jaso dute errealitate hau, Olaziregik, Oskar Alvarez Gilaren esanak kontuan hartuta honako hau baitio (Olaziregi, 2012: 157): “The Church in the Basque Country also aligned itself with nationalism in its rejection of emigration. The pastorals against emigration written by the bishops of Iruñea-Pamplona, Baiona, and Vitoria-Gasteiz in 1852, 1855, and 1867, respectively, are good examples of this tendency”.

Seigarren eskutitzean ikusten dugu nola jartzen duten protagonistaren fedea zalantzan:

Eta kirtenak halakoak! Eskutitzaren hasieran “Leaburu Hotel, Sacramento eta Street” hemen ere berriz erakutsi ahal ditu. Ez hago hi Sacramento Txarra! Elizarako zeinuak onenak eta ugari ekarri, besteei dei egiteko noski. Sartzen ote haiz herori Sacramento horretako eliza batean ere! (Azkue, 1918: 155).

Hamaikagarren eskutitzean, Aita Mendiriren eranskinetan, ageri da Amerika federik gabeko lurraldea dela (Azkue, 2018: 275-277).

Ameriketara joateagatik, eta fedea galtzeagatik, bekatariaren ideia ere ageri da hamaikagarren eskutitzean; gainera, pasarte honetan bertan ageri da nola Medel itzuli den artaldera, Euskal Herrira itzuli eta gero:

Alleuia, alleuia. Ardi galdua, Medel, artegira zetorren [...] Bekatari bat itzultzen denean, aingeruen poza handia izan behar, gure poza honenbestearainokoa denean (Azkue, 1918: 297-299).

6.2.4 Itzulera

Idea nagusien artean aipatu beharrekoa da Euskal Herrira itzultzearen ideia. Hiru liburuetan da garrantzitsua: *Ardi galdua*-n fedea berreskuratu behar duelako protagonistak. Desberdina da ideia hori beste bi liburuetan: oso presente dago Laxalten eta Ugalderen liburuetan. Obsesio ere bihurtzen da Ugalderen kontakizunean; egindako lan guztia noizbait Euskal Herrira itzultzeko eta etxe bat erosteko da. Azpimarragarria da, hala ere, Dominique artzainaren kontakizunean nola bukaeran Dominiquentzat Euskal Herria herrialde arrotz bihurtu den: “Ezin naiteke itzuli. Hau ez da orain nire herria” (Laxalt, 1957: 202).

Euskal Herrira bueltan, bisitan, ostatu batean gaua pasatzeko geratzen direnean, artzain batekin hizketan aritzen da Dominiquek; beste artzainak azaltzen du nola Euskal Herrira itzultzea izan zen beti bere helburua (Laxalt, 1957: 124).

Hizkuntzaren gaia ere ateratzen da liburuetan. Azkueren liburuan, Leon semea ingelesez ikasten ari dela aipatzen da bosgarren eskutitzean (Azkue, 1918 :113)

Dominiquekin hitz egin duen artzainak ere aipatzen du hizkuntzaren gaia, erakusteko zeinen interes gutxi zuen han geratzeko edo integratzeko: “Bitxia da, baina ingelesa ikasteko interesik ere ez nuen. Diru piska bat bildu eta neure lurraldera itzultzea beste gogorik ez nuen! (Laxalt, 2002 [1957]: 125). Dominiquek, berriz, azaltzen du zergatik ez den Euskal Herrira bizitzera itzuli, hain zuzen, dirua irabazi eta han negozioak martxan jarri dituelako (Laxalt, 2002 [1957]: 125). Gainera, familia bat sortua du

Ameriketan, eta emazteak, euskal jatorrikoa izan arren, ez du Euskal Herrira itzultzeko gogorik (Laxalt, 2002 [1957]: 42) .

Euskal Herrira itzultzearen ideia oso garrantzitsua da *Itzulera baten historia* eleberrian, paratestutik bertatik hasita. Euskal Herrira itzultzearen istorioa eta deserrotze baten kontakizuna. Baina azkenean, arazo ekonomiko batzuegatik, Europatik (Frantziatik) Caracaserako itzulera da gertatzen dena liburuaren amaieran, familia osoa Euskal Herrian elkartu gabe.

Liburu guztiaren ardatza da itzuleraren gaia, familiak dirua lortu behar du Euskal Herrira itzultzeko. Baina familia honen kasuan, dirua ez da arazo bakarra. Frankismotik ihes egindakoa da aita, eta hori ere bihurtzen da familiaren buruhaustea: frankismoa noiz bukatuko zain daude, eta bien bitartean, Venezuelan lanean ari dira dirua lortzeko eta noizbait Euskal Herrira. Hori lortu artean, familia sakabanatuta dago, batzuk Venezuelan, besteak Frantzian eta baita Santurtzin ere. Familia errorik gabe uzten du egoera horrek, batez ere, protagonistaren kontakizunean ikusten da, ez delako sentitzen ez hango eta ez hemengo.

6.3 Emakumeen rola

Eleberrietan pertsonaia femeninoek duten rola aztertuz gero, hau da, sistema aktantzialaren arabera subjektu diren ala ez aztertuz gero, gehienetan objektu direla esan beharko genuke. Gainera, gehienetan, bigarren mailako pertsonaia dira, bereziki, Azkueren eta Laxalten liburuetan. Martin Ugaldereen liburuan, berriz, jauzi bat egiten dute emakumeek eta lehen lerrora pasatzen dira: liburuko protagonista emakume gazte bat da. Hala ere, bada desberdintasun bat: bigarren mailako pertsonaiak direnean, emakume gogorak dira, familia eta negozioaren kudeaketa eramaten duten emakumeak dira. Baina protagonista rolean agertzen denean, emakume ahul bat da.

Sukaldean aritzearen lana edo familiaren zaintza dira batez ere emakumeen eginbeharrak Azkue eta Laxalten liburuan. *Ardi Galdua*-n argi ikusten da Leaburuko emakumeen papera zein den, sukaldean aritzea: “Sukaldean tokiak hartu ahala emakumeak zebiltzan gosari sendoa eta geroko bazkari ugaria gertatzen.” (Azkue, 1918: 301).

Rol bera dute emakumeek Laxalten liburuan. Artzain joandako gizonen emakumeak bigarren maila batean ageri dira beti. Baina azpimarratu beharra dago sekulako lana egin zutela emakume horiek; gizonekin egon ziren kanpamenduetan, beharrezko zenean artzain edo behizain lanetan, eta baita sukaldean ere, haien gizonarentzat eta beste gizon batzuentzat kozinatzen (Laxalt, 1957: 119). Ameriketara joandako emakume haiek gizonei lagundu egiten zieten artzain lanean, baina oso barneratua zuten lan hori gizonen lana zela (Laxalt 1957: 116-117).

Etxeko kudeaketa ondo eramaten zuten, familia guztiaren egunerokoa antolatzen zuten, etxe bera zaintzen eta antolatzen zuten, otorduak... esan daiteke kudeatzaile onak izan zirela:

Gure akorduan berak gidatu izan zituen famili negozioak eta bidaiak antolatzen ere ongi zekien (Laxalt, 1957: 42).

Etxearen kudeaketan aritu eta gero, eta arrantxoetan sukaldean ikasitakoarekin, esperientzia lortu zuten emakume haiek, eta diru pixka bat lortu ondoren, hotelak ireki zituzten hirietan; eta goizetik gauera lanean aritzen ziren “goizaldeko lauretatik gauerdira arte”, etxean, hotelean eta familia zaintzen, “adoreko emakumeak” zirela azpimarratzen du Laxaltek (Laxalt, 1957: 119).

Martin Ugalderen liburuan, ordea, aldaketa bat dago: protagonista paperera igarotzen da emakumea. Familiako alaben artean nagusia da protagonista, eta anaia zaharragoa ere badu. Hala ere, berea da zaintzaren ardura edo amona eta izeba zaharrena. Bestalde, protagonista paperera igaro arren, emakumearen irudia nahiko ahul eta beldurtia da: “sentibera” eta “izukor” moduan deskribatzen du bere burua protagonistak (Ugalde, 1990: 30). Geroago ere, aitak azpimarratu egingo du alabaren “izukortasuna” (Ugalde, 1990: 96).

Zaintzari dagokionez, amona eta izebak batez ere, etxe barrukoaz arduratzen dira. Baina kanpoko heziketaz, ibilbide akademikoaz, hizkuntzez eta irakurketez..., ordea, aita arduratzen da (Ugalde, 1990: 66).

Ondoko adibidean ere argi ikusten da aitaren ardura alabaren heziketarekin, kasu honetan, hizkuntzekin eta liburuekin; nabarmentzekoa da Ugaldek berak hizkuntzekin eta ikasketekin zuen ardura:

Itzuli zenean opari polit bat egin zidan: Ling Yutang-en liburu bat: ‘Una hoja en la tormenta’, aitak berak oso atsegin zuena, eta esan zidan: “Gazteleraz irakurri behar duzu hizkuntzan askatzeko”. Eta Dickens-en liburua zen bestea: ‘A Christmas Carol’, “Ingelesa ahantz ez dezazun” (Ugalde, 1990: 121-122).

Bestalde, azpimarratzekoa da neska protagonistaren eta anaiaren artean egiten dituzten ezberdintasunak jarrerai, ardurei eta haien askatasunari dagokionez:

Nire anaia txoria bezain libre zen, baina ni neu ez nintzen mutila. Osorik ulertzen ez banuen ere, pasa nuen izudura itsu baten truke jabetu nintzen aitak niganako zuen obsesio hartaz (Ugalde, 1990: 15).

Anaiarekin konparaketa egiten du geroago ere, eta gizon-emakumeen ezberdintasun klasikoak azaleratzen dira, gizona “azkarra” da eta emakumea “sentibera” eta “izukorra” (Ugalde, 1990: 30).

Ardi Galdua-n bada berezitasun bat emakumeei dagokienez, eta zentzu honetan aldendu egiten da amerikar *Bestea*-ren errepresentazio ezkorretik (Olaziregi, 2012). Medel emakume amerikar batekin ezkontzen da, ez ditu baztertzen ala gutxiesten. Euskal Herrira ekartzen du bisitan, eta Euskal Herriko emakumeekin alderatuta, AEBetako emakumeak askeagoak direla ikusten da:

Nire gogoia oso-osorik beteko balitz, Leaburutik ez nintzateke aterako, berriz Kaliforniara joan arte; baina Bostonen jaio, San Frantziskon hazi eta Sacramenton bizi den emakumea, peko (esclavo) izatekoa ez bada, Madril, Paris eta Londres ikusi gabe, ezin eramana izan liteke urezandiko beronen herri aldera (Azkue, 1918: 165).

7 ONDORIOAK

Bi galderekin abiatu genuen lan hau: Amerikaren zer errepresentazio egin du euskal literaturak XX. mendean? Zein rol izan zuten Ameriketara joandako emakumeek eta zein ikusgarritasun izan dute garai hartako literaturan?

Resurreccion M. Azkueren *Ardi galdua* (1918), Robert Laxalten *Dominique artzain xiberotar bat Nevadan* (2002 [1957]) eta Martin Ugaldereen *Itzulera baten historia* (1990) landu ondoren, esan dezakegu batez ere Amerika aberasteko herrialde moduan aurkeztu izan dela XX. mendeko euskal literaturan. Orain arte egindako ikerketek erakutsi duten moduan, besteak beste, Garikanok (2009), William A. Douglasssek (1997), Jon Bilbaok eta Olaziregik (2010) egindako ikerketek erakutsi bezala. Hala ere, garaiei erreparatuta, badaude ezberdintasunak. XX. mende hasierako liburuan, erlijioak garrantzi handia zuen, eta zentzun horretan, fedearekin lotuta ere agertzen zen Amerika: fedea galtzeko tokia eta biziorako toki moduan agertzen da Azkueren liburuan. Ondoren, irudi hori aldatu eta aberasteko toki moduan bakarrik irudikatzen da.

Gainera, Olaziregik dion moduan, euskal literaturan *Bestea*-ren kontzeptua erabili izan da euskaldunen eta amerikarren artean bereizteko. Zehazki, hori ikertzeko Saidek abiatutako ikerketa postkolonialari jarraitu diogu, sortzaileak dion moduan, identitate bat sortzerakoan, derrigorrez sortzen baita ‘Bestea’-ren kontzeptua, ‘gugandik’ bereiziko dena; eta hiru liburuetan nabaria da euskaldunen eta amerikarren arteko bereizketa. Nahiz eta *Ardi galdua*-ren kasuan, protagonistak hautsi egiten duen prototipo hori, amerikar batekin ezkontzerakoan.

Emakumeen rola aztertzeke ikerketa subalternoen bideari jarraitu diogu. Korrante horren arabera, eliteek bigarren mailan uzten dituzte gizarte maila apalagoak: arraza, etnia, generoa.... Kasu honetan hala gertatzen da, emakumeak bigarren planoan geratu dira; literatura, oro har, artzainaren irudian enfokatu baita.

Hala ere, garrantzi handia izan zuten indianoan bizietan, Jeronima Echeverriak bere lanean zehazten duen moduan. Haiak izan ziren artzainek sustengu, bai artzain lanari dagokionez, bai familiako beharrei dagokionez ere. Haurrak hezi zituzten, eta familia

aurrera atera zuten; gainera, euskararen eta euskal kulturaren transmisioan garrantzitsua izan zen haien lana. Halaber, kudeaketarako gaitasun handia erakutsi zuten, askok urte batzuk pasa eta gero hotelak edo ostalak kudeatu baitzituzten, gizona artzain lanetan zegoen bitartean.

Beraz, esan dezakegu hiru liburu hauetan egiten den amerikaren errepresentazioak orain arte egin diren beste ikerketa lanekin bat egiten duela: aberasteko lurraldea eta fedea galtzeko lurraldea da euskal literaturarentzat Amerika XX. mendean. Era berean, emakumeak bigarren mailakotzat edo subalternotzat hartu dira liburu hauetan ere.

8 BIBLIOGRAFIA

- Ariznabarreta Garabieta, L. (2013). *Martín Ugalde: Cartografías de un discurso*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.
- Ascunce Arrieta, J. A. (1993). Martín de Ugalde: Evocación y crítica en la obra literaria del exilio. *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 3, 69–92.
- Ascunce Arrieta, J. A. (2002). Claves líricas en la narrativa de Martín de Ugalde. *Martín Ugalde Azterkizun = Encuentros con Martín de Ugalde, 2002*, 153–178.
- Azkue, R. M. de. (2018). *Ardi galdua* (E. Perez Gaztelu & A. Toledo Lezeta, Ed.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Douglass, W. A. (1997). Emigrantes vascos: Contrastes en los modelos de adaptación en Argentina y en el oeste americano. *Los otros vascos: las migraciones vascas en el siglo XX, 1997*, 51–76.
- Echeverria, J. (1999). *Home away from home: A history of Basque boardinghouses*. Reno: University of Nevada Press.
- Garikano, A. (2009). *Far Westeko Euskal Herria*. Iruñea: Pamiela.
- Guha, R. (2002). *Las voces de la historia: Y otros estudios subalternos*. Barcelona: Crítica.
- Irujo Amezaga, X. (2008). Euskal Erbestea eta erbesteak. *Guregandik. Revista Del Centro de Estudios Arturo Campion*, 4.
- Laxalt, R. (1957). *Sweet Promised Land*. New York: Harper & Row.
- Laxalt, R. (2002). *Dominique: Artzain xiberotar bat Nevadan* (X. Mendiguren Bereziartu, Itzul.). Donostia: Elkar.
- Laxalt, R. (2010). *Aita artzain zen* (P. Etxebarne, Itzul.). Maule-Lextarre: Sü Azia.
- Olaziregi Alustiza, M. J. (2010). Las representaciones de la diáspora en la literatura infantil y juvenil vasca. *Anuario de investigación en literatura infantil y juvenil: ANILIJ*, 8, 111–121.

- Perez Gaztelu, E., & Toledo Lezeta, A. (2018a). Ardi Galdua 2018an, Arantzazutik igarota. Aitzinsolas moduan. In R. M. Azkue, *Ardi galdua* (1–11). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Perez Gaztelu, E., & Toledo Lezeta, A. (2018b). R.M. Azkue kontakizun-egilea. In R. M. Azkue, *Ardi galdua* (13–50). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Río Raigadas, D. (2000). Retrato de un escritor vasco de Nevada, Robert Laxalt (1923-2001). *Revista internacional de los estudios vascos = Eusko ikaskuntzen nazioarteko aldizkaria = Revue internationale des études basques = International journal on Basque studies, RIEV*, 45(2), 599–621.
- Río Raigadas, D. (2004). *La voz de los vascos en la literatura norteamericana*. Bilbo: EHU.
- Said, E. W. (1978). *Orientalism*. London: Pantheon Books.
- Ugalde, M. de. (1990). *Itzulera baten historia*. Donostia: Elkar.